

ERREFORMAK ELIZAN

Berrikuntza edo *erreforma* hitza eta honen esannahia ez daude nahiko zehaztuak; hau da, hitz honek esannahi desberdin bat baino gehiago ditu. Elizaren historian, XII. mendez geroztik batez ere, erreformaren edo kristau berrikuntza sakon baten beharra bizi-bizi somatzen zen, eta hori, itxaropen eta erakarpen handiko izpiritu-indar gertatu zen askorentzat. Aipa dezagun, esaterako, Asisko Frantzisko santua. Berrikuntzak eskatuz jasotzen zuten sermolariek euren ahotsa eliz bizitzaren maila desberdinetatik, Eliza instituzionalaren barrutik batez ere. Adibidez, Hus, Savonarola etab.; berrikuntza ekarri zutenak, Konstanza eta Basileako kontzilioak ere izan ziren. Berrikuntza-nahia, Elizari dardar eragiten zion oihu bizi-bizia zen jandanik XV. mendean. Mende honetan, *erreforma* hitza, Elizaren historiaren hitz nagusi bihurtzen da.

Berrikuntza herri-bizitzan (sakramentuetan, ohituretan eta abarretan), elizgizonen bizitzan (izpiritu-bizitzan, ohituretan, heziketan...), erakundeetan (haien egitura, lege eta abarretan)... Argi ikus daitekeenez, elijioso-ordenak dira berrikuntza edo erreforma hauen guztien ardatz.

Historian zehar, mugimendu ortodoxo eta heterodoxo desberdinen aitzindari, pertsona ospetsu eta aipagarriak daude;

haiek izango dira herri-mugimendu desberdinen eta komunitate erlijiosoen eragile eta gidari.

Erreforma nagusien artean, honako hauek aipa genitzake: Eskeko Ordenen sorrera XIII. mendean, protestantismoaren sorrera XV. eta XVI. mendeetan eta Trentoko Kontzilioa, XIX. mendeko berrikuntzak, eta, oraindik orain, Vatikanoko II. kontzilioaren eragin bizi eta berritzailea.

Kristauen eguneroko bizitzan gauzatzen diren mugimendu eta berrikuntza hauekin batera, Eliza katolikoaren legegintzan ere berritze-gogoia nabari da; aldi bakoitzeko premia eta ohituren arabera, lege-egitura malguago bihurtzeko saioak.

1. ERREFORMA EDO BERRIKUNTZA KATOLIKOAK

Historian zehar Elizak izan dituen berrikuntzen fase desberdinak adieraziko ditugu lerro gutxitan eta beti ere euskal Elizarekin erlazionaturik. Egia esan, euskal Elizaren berrikuntzaz ez dugu lan askorik, baina horretaz dugun bibliografia emango dugu, lan honen helbururik nagusienetariko bat horixe da eta.

a. XV. mendera arte

Etengabeko berrikuntza honek edo eta ebanjelioa biziberritzeko irrikak, mugimendu izpiritualak eta ahizpa eta anai elkarreak sortzera bultzatu zituen, historian zehar, hainbat gizon eta emakume. Historian zehar izan den gertakaririk aipagarrienetarikoa, horretan, Benito santuaren ekintza dugu, monastegibizitza sortu zuelarik. Geroago, Erdi Aro beranduan, "Gregoriar Erreforma"z geroztik, kristautasun kontzientzia biziagotu ahala, pobretasun zorrotzagoa eta ebanjelioari darion xalotasuna, lanean eta bakardadean bizi izateko joera nagusitu zen. Aszetismo zorrotz hau erlijioso-ordena batzuetan nabari da batez ere, hala nola, Zistertarren, Kartusiarren, Premontretar-

rrengan... Aszetismo honek eragin sakona izan zuen gainerako monastegietan ere.

Euskal giroan eraiki ziren monastegiak aipaturik, "Monosticon Vasconicum" izenekoan azaldu dudanez, izugarritzko indarra hartu zuten hauek, X garren mendetik XIII garrenera bitartean batez ere.

Monastegi txiki nahiz handien eraginak berrikuntza eta aurrerakada ekarri zituzten Euskal Herriko kristau bizitzan.

Garai berean, apaizteriak bere bizitza elkartean berrantolatzeko joera agertu zuen, joera hori batez ere katedraleetako kapituluetan nabari zelarik. Jaka, Iruñea eta abarretako kapituluak ditugu horren adibide. Honela erregelapeko kalonjeen taldeak sortu ziren, monastegien fundazioei nolabaiteko lehia eginik. Berrikuntzaren beste abiaburu bat, XII-XIII garren mendeetan gertatutako Premontretarren agerpena izan zen, Urdaxko abatetxearen eraikitzea, adibidez...

Berrikuntza edo erreformarako saio hauen artean, benetan esanguratsua izan zen hainbeste sinodo egin izana, batez ere XIV. mendean Iruñean, 13 egin ziren, eta beste hiru Kalahorran. Sinodo horietan, Iruñeko elizbarrutian, honako hauek dira azpimarragarrienak: simonia, lukurreria, bigamiaren aurkako ekintza (1313); hamarrenak ez banatzea ere salatu zen, baita parroko askoren finkotasunik eza ere, noiznahi eta nolana aldutzen bait zituzten batetik bestera (1315). Barbazan-go Arnalt apezpiku-hirian egin ziren batez ere sinodoak, ohaideekin bizi ziren apaizen aurka (1330), apaiz egin orduko, gazteei heziera sendoa ematearen alde (1341) erabaki zorrotzak hartuz.

b. Katolikoan erreforma nagusia eta Trento: XVI-XVII

Izan ere, XVI. mendetik XVII.era arte gauzatu zen erreforma katoliko nagusiak, protestantismoaren agerpenaz, ikara egin zuen eta azkartu egin zuen bere ekintza.

1. Trento baino lehen

XV. mendearen azkenerantz, berrikuntzarako deiak oihartzu-
na zuen askoren kontzientzietan eta eliz gidarien kontzientzie-
tan batez ere. Baina errege eta hauen aholkulariak ere, berri-
kuntza edo erreforma sozio-erlijiosoaren eragile bene-beneta-
ko bihurtu ziren.

Horrela, Errege Katolikoan eta Karlos V.aren garaian, hauek
euren erizpideak ezarri zituzten apezpikuen izendapenetan,
apezpikuak euren elizbarrutietan egotea, bertakoak izatea edo
haien erreinuetan jaiok izatea, zintzoak, jakintsuak eta abar
izatea exigituz. Francisco Jiménez de Cisneros-ek eta, erlijioso-
en erreforma bultzatu zuten, apaizteriaren heziera intelektuala
eraginez.

Ardura honen, berrikuntza-nahi eta ahaleginen agergarri,
Trento baino lehen, Euskal Herrian egindako sinodoak dira.
XVI. mendea euskal sinodoen mendea da, 34 edo egin bait zi-
ren. 1499.ean jadanik, Iruñeko sinodoaren estatutuetan, elizbar-
rutiaren egoera negargarria salatzen zen: jende ezjakin eta
inolako prestaerarik gabeak apaiz sagaratuak dira; beste bat-
zuek, ez zegokien lanean sartzen ziren, apaiz izan gabe apaiz-
lanak egiten; beste elizgizon batzuen ardura bakarra dirua ira-
baztea zen... laikoek elizaren askatasunaren aurka egiten zu-
ten... Sinodoa gehiegikeria hauek eta antzekoak galerazteko
asmoz egin zen. Baina ez hori soilik: elizbarrutiko buruei, hau
da, apezpiku, bikario nagusi eta abarri ere berrikuntza exigitu
zitzaien. Brebiarioa zuzendu zen eta sinodoetako hainbat
konstituzio bildu ziren, 1501.ean argitaraturik.

1524.eko sinodoan 17 eskabide egin ziren, apaizteriaren eta
elizbarrutiko gainerako guztien egoera hobetzeko. 1531.eko si-
nodo-konstituzioetan, 1501.ean argitaratutako konstituzioetan
biltzen dena onartzen da eta honako hauek bete daitezela
agintzen du: gogor jotzen du elizgizonen ohaidetasuna; eliztar
guztiak igande eta jaiegunetan meza nagusia entzutera behar-
tzea agintzen du; urtero artzain- bisita egitea agintzen du; ez

dadila erostari edo hiletaririk elizetan onartu; bateoetako erre-gistro-liburu bat izan dadila; eliztarrak urtean behin gutxienez aitortu daitezela etab...

Pedro Pacheco apezpikuaren garaian (1539-1545), elizbarrutian berrikuntza katoliko orokorraren eragina bizi-bizi somatzen zenez gero, sinodo berri bat egiteko prest-prest zegoen. Halaxe egin zen 1544. urtean, beronen ondorioetariko batzuk honako hauek izanik: ebanjelioaren katekesia eta sakramentuen ohikune-liburuaren berrikusketa. 1548.ean egin zen besté sinodo bat; bertan kuriak diru-kontuetan egiten zituen gehiegikeriak galeraztera jo zen; elizgizon eta herriari zegozkien arau batzuk ere eman ziren...

Trento aurretik Iruñean egin ziren sinodo hauetaz gainera, berrikuntza giro horren ezaugarri dira Kalahorran egindako sinodoak (1480, 1492, 1502, 1529, 1530, 1537, 1544, 1545, 1546...), Baionan 1533.ean eta Oloroan 1529.ean egindakoak.

2. *Protestantismoaren agerpena*

XVI. mendeko Elizaren berrikuntza gogoia irakin bizian zelarik, Eliza osoaren etorkizunean eragin handia izango zuen gertakari edo mugimendu bat izan zen, Euskal Herrian ere geroko norabidea zeharo markaturik utziko zuena: protestantismoaren agerpena eta Eliza katolikoaren berrikuntza Trentoko kontzilioaren bitartez. Horren ondorioa garbia zen: katolikotasun ausartago eta kementsuagoa.

Protestantismoaren hasiera sinbolikoa, indulgentziei buruz, 1517. urtean, Luteroren 95 tesien argitarapena izan zen. "Erreformazaleek", Elizan, geroago eta egitura-aldaketa sakonagoen beharra azpimarkatzen zuten. Gertakariak azkar zihoazen korapilatuz, eta arazo sozio-politiko-kulturalak eta nazio-arazoak ere tarteko zirelarik, erreformazaleek ez zuten behar bezala ezagutu beraien gogo eta ametsetan zen katolikotasuna; Elizak ere, bere aldetik, ez zuen asmatu protestanteen doktrina berrian katolikotasunik behar bezala ikusten. Arriskuak izutu

egin zuen Eliza; eta arriskua ezinbestean haustura eta zatiketa-
ra eramango zuena zen: Elizaren irakaslego bizia ukatzea.

Penintsula berrikuntza eta idea berrien irakindegia zen. Erasmo-ren irakaskuntzak ongi sustraitu ziren... Baina Hego Euskal Herrian, arrazoi sozio-politiko-erlijioso ezagunengatik protestantismoa sartu ez arren, Iparraldean, geroago ikusiko dugunez, garrantzi handi samarra izan zuen.

Orohar, protestantismoaren aurkako erreakzioa, hau da, Trento eta honen fruitutzat har daitekeen katolikotasun berri-
ta eta bizia, erabakiorra izan zen ez Europa osorako soilik, baita Euskal Herriaren etorkizunerako ere.

3. Trento (1545-1563) - Felipe II.aren berrikuntza

Hau izan zen kontzilio guztietarik luzeena eta Elizaren etor-
kizunean eraginik handiena izan zuena. Protestantismoaren aurkako erreakzioa eta berrikuntzaren premia biziki somatzen ziren. Honela eman zitzaion kontraerreformari hasiera, ez oke-
rrak salatuz soilik, baita egitura zaharkituak garbituz eta gain-
dituz ere; bizi berriaren ernamuina, katolikotasun berria txerta-
tu behar zen Elizan. Kontzilioan esku hartu zuten espainiarren artetik, 250 edo ezagunak dira; hauen artetik, euskal elizbarru-
tietako 15 bat dira ezagunak; besteak beste, hauek aipa geni-
tzake: Bartolome Carranza, Francisco de Navarra, Alvaro de Moscoso, Martin de Olave, Pedro de Labrit, Juan Bernal Diaz de Luco etab.

Joera politiko eta erlijiosoak elkarri loturik zeuden garai har-
tan, Felipe II.aren ideal politiko-erlijiosoa katolikotasunaren babestaile bihurtu zen. Horrela bere berrikuntza-ametsak egia bihurtzen saiatu zen, batzuetan Erromaren mesfidantzaren gai-
netik ere bai. Jakina, erlijio-batasunaren alde egitean, bide ba-
tez, bere mende zituen estatuen batasun politikoa bilatzen zuen. Felipe II.aren erreinuko berrikuntza-giro honetan gauza-
tu zen elizbarrutien berrikuntza handia eta bereziki erlijioso-or-
denen berrikuntza.

Felipe II.aren berrikuntza zaletasunak asko egin zuen Espainiako Elizaren berrikuntzaren alde, eta neurri handi batean, baita Elizaren berrikuntzaren alde ere. Jakina, bazuen akatsik ere, azaleko berrikuntza bait zen, zenbait ordenetako berrikuntza izpirituala moteldurik. Euskal Herriko Hegoaldeko elizbarrutiak penintsulako giro horretan murgildurik zeuden.

4. Trentoren eta berrikuntzaren ondorio batzuk

Trentoko berrikuntzak Eliz bizitzaren arlo guztiak hartzen zituen: Elizaren estamentu eta bizitza eta ohitura guztien berrikuntza. Elizbarruti, parrokia eta sakramentuei dagokien berrikuntza bereziki azpimarratzekoa da. Garrantzi handia ematen zitzaion berrikuntzaren aitzindari edo eragile izango ziren buruak: apezpiku, apaiz eta erlijiosoak bihotz- bihotzez eraberritzeari.

Lehenago esan dugunez, Iruñean esate baterako, kontzilio aurretik ere hasia zen berrikuntza, baina kontzilio ondoren indar handiagoa hartu zuen.

aa. Elizbarrutia: apezpikuak - apaizteria - herria

Pastoralgintza

Trentoko erabakiak argitaratuak eta onartuak izan ziren 1564.ean Iruñeako elizbarrutian, baita Kalahorrakoan ere, baina ez Baionakoan.

Apezpikuei elizbarrutiarekiko leialtasun handiagoa eskatzen zitzaien eta arimazaintzan arduratsuago aritzea. Dirudieenez, ez zen harritzekoa apezpikuak, euren lana bertan behera utzirik, beste gauza batzuetan aritzea. Adibidez, J. Goñi Gaztambidek dioenez, Iruñeko elizbarrutia, 60 urtetan zehar (1481-1540) ez zen artzainen ardurapean egon, merzenari edo saripekoen menpean baizik eta hauek oso gutxitan izaten ziren elizbarrutian. Baionako elizbarrutian beste horrenbeste gertatzen omen zen, Jean du Bellay (1524-1532) eta Jean des Moustiers (1550-1569) maiz egoten bait ziren diplomazi zereginetan, elizbarrutitik kanpo.

Trentoren ondoren hasi ziren parrokiatara bisitak, kontzilioak bisita horiek egitea exigitzen bait zien apezpikuei. Alvaro Moscoso apezpikuak, adibidez, Trentotik itzultzerakoan eta kontzilio garaian, ia elizbarruti osoa bisitatu zuen; Donostiako San Bizenti parrokia, esaterako, lau aldiz bisitatu zuen apezpiku honek, lehenengo aldiz bera pertsonalki joan zen (1554). Hurrengo apezpikua, Diego Ramírez Sedeño ere Lizarrako gaisoetxeetan (1568) eta Iruñean ikustaldiak egiten agertzen zaigu dokumentuetan; ondorengo apezpikuek ere egiten dituzte artzain-bisitak: 1576-1577, 1580-1584, eta abar.

Beste berrikuntza bide bat sinodo diozesiarrak ziren. Lehenago ere adierazi dugu XVI. mendea izan zela euskal sinodorik gehien egin ziren garaia. Kontzilioaren aurretik hasitako ekintza honek, gero, berrikuntza-giro biziagoz izan zuen jarraipena:

Iruñeko elizbarrutian sinodoa izan zen 1562.ean eta 1566.ean, baina Diego Ramírez Sedeño Apezpikuak zailtasun handiak izan zituen. Antonio Manrique, hurrengo apezpikuak, 1577.ean, kontzilioaren aholkuak kontutan hartuz, ohiturak hobetzeari ekin zion. Ondorengo sinodoa 1586.ean egin zen. Eta XVI. mendeko azkena Bernardo de Rojas-ek deitu zuen 1590. urtean. Han egindako konstituzioak, 1590.ekoak, baina 1591.ean argitaratuak, ordurarteko guztietarik garrantzitsuenak izan ziren, J. Goñi Gaztambidek dioskunez: haien bitartez egokitu ziren Trentoko dekretuak elizbarutira.

XVI. eta XVII. mendeetan, Trentoko erreformaren harian, Artzain-bisita eta sinodoetako dekretu hauetan nola jokatzeko, Donostiako San Bizenti Parrokiako kasua azaltzen digu J.I. Telletxea-k. Donostiako parrokiaren egoera, apaizen berriztatzea eta herriaren erlijiotasunean gertatu ziren aurrerapenak nabari dira bertan.

Kalahorrako elizbarrutian, 1561, 1563, 1571, 1573, 1600-1601, 1620 eta abarretan izan ziren sinodoak. Trentoko kontzilioan esku hartu zuen Juan Bernal Díaz de Luko euskaldun apezpikuak, 1545.etik 1556.era bitartean Kalahorrako apezpiku

zela, lan bikaina egin zuen, berriztatzaile aparta izanik. Zenbait sinodo egin ziren honen gidaritzapean; 1555.ean sinodoaren konstituzioak argitara erazi zituen. Aipagarriak dira 1600.etik 1601.era bitartean, P. Manso de Zúñiga-ren gidaritzapean egin-dako sinodoa eta 1620.ean Pedro González de Castillo-ren gidaritzapean egindakoa.

Hala ere Frantzian, eta bereziki Baionako elizbarrutian, Trentoko dekretuak ez ziren hain onartuak izan eta oztopo handiak aurkitu zituzten. Hori dela eta, atzerapen handiz ezarri ziren. Parisko parlamentuak, galikanismoaren ideiak ongi sartuak zituenez gero, kontzilioaren dekretuak ez zituen erregistratu nahi, baina Trentoko erreforma apurka-apurka nagusituz joan zen gizon eta emakume santuen ahaleginari esker, bizitza santuaren eredu eta erlijio-bizitzaren berriztatzaile ziren gizon eta emakume bikainen eraginez.

1533.etik 1666.era arte ez zen sinodorik egin. Hain zuzen ere, Baionako apezpiku-hiriko azken euskalduna, Jean d'Olce, izan zen 1666.ean sinodora deitu eta bertako estatutoak argitaratu zituen.

Sinodo hauetako arau asko eta asko apaiz sekularrei zuzendutakoak ziren, haien bizitza eta ohiturak hobetzeko eta haien heziera osatzeko. Horretarako ziren apezpiku eta hauen ordezkoren artzain-bisitak. Eliz gidarien ahalegin hau garbi ikus daiteke ondorengo hauetan: gehiegikerien aurka egindako ediktuak, ohiturak hobetzeko artzain-aholkuak, gogo-jardunak, adimen-heziera etab. Horrek guztiorrek bere fruituak eman zituen eta guztia herriaren onerako izan zen.

Trentoko "Pro seminariis" dekretua abiapuntutzat hartuz, elizgizonen heziera helburutzat zuen mugimendu bizi bat sortu zen: kontzilio-seminarioen sorrera. Baina zenbait oztopo zirela eta, atzerapenez sortu ziren: Baionan 1722.ean eta 1733.ean sortu zen seminarioa; Kalahorran 1776.ean; Iruñean 1777.ean; Gasteizko elizbarrutian 1884.ean; Bilboko eta Donostiakoan 1953.ean.

Berrikuntza giro honen harian beste ahalegin handietariko bat herriarengana zuzendua zen, herriaren kristau-hezierara, horregatik dotrina edo kristau-ikasbide ugari argitaratu ziren. Sakramentuetan esku hartzea gomendatu zen, deboziziozko bitzita eta Ama Birjinaganako maitasuna. Erlijiotasuna geroago eta sendoagoa zen.

bb. Josulagunen eta erlijioso-ordenen berriztapena

Berrikuntza katolikoaren eragiletik nagusienetarikoak, Europa osoan eta Euskal Herrian, Josulagunen agerpena, antzinako ordenen erreforma eta ordena berriztatuen sorrera izan ziren.

Josulagunak

Hain zuzen ere, euskaldun bat izan zen hauen fundatzailea, Loiolako Inazio (1540); helburua: kristau erlijioaren zabalkundea Jainkoaren Hitza iragarritz, gogo-jardunen bitartez, karitatezko ekintzen bitartez, gazteriaren heziketaz eta aitorlekuko apostolutzaz. Horrela bultzada handia hartu zuen "Kontraerreformak" bai Europa osoan eta bai Euskal Herrian. Haren eragina Euskal Herriko lehen fundazioetan nabari izan zen: Logroño (1559), Iruñea (1584), Bergara (1594), Azkoitia (1600), Bilbo (1604), Donostia (1627) etab.

Antzinako komentuen berriztapena eta fundazio berriak

J. Goñi Gaztambidek, Iruñeko elizbarrutiko monastegi ospetsu batzuetan, Trentoko berrikuntzak ezartzeko egin ziren ahaleginen berri ematen digu; hauek aipatzen ditu: Fiteroko monastegia, Urdazubikoa, Iruñeko Karmeldar zaharrak, Iruñe eta Lizarrako Klaratarrak, Lizarrako Mesedetakoak, Domingotarrak eta Beneditarrak.

Baina Elizari arnasa berria eman ziotenak ordena berriak eta antzinakoetatik berriztatuak izan ziren; hauek zeharo ugaritu ziren Euskal Herrian Trentoko kontzilioaren ondorengo lehen mendean, beste kapitulu batean ikusi dugunez. Esate baterako, kaputxinoen etxeak eraiki ziren Iruñean (1606) eta mende ho-

rretan bertan Erreterian, Tuteran, Baionan, Azkoienen, Zen-tronikon, Los Ascos-en, Bianan, Tafallan. Karmeldarren etxeak hurrenez hurren honela eraiki ziren: Iruñean lehenengo (1587), gero Korellan eta Tuteran, eta XVII. mendean Lazkaon, Markinan eta Bilbon. Frantziskotarrek, XVI. eta XVII. mendeetan Debako Sasiolan, Arantzazun, Elgoibarren, Arrasaten, Tolosan, Donostian, Zarautzen, Gasteizen, La Puebla de Arganzonen; eta emakumezkoen artean, Klaratar eta Kontzeptziotarrenak hainbat fundazio egin ziren: Bilbon, Tuteran, Donostian... eta beste ordena eta kongregazio batzuen etxe asko gehiago.

Zabalkunde hau kristau bizitza Euskal Herrian sustraitzeko bitarteko ezin hobea izan zen.

cc. XVI. eta XVII. mendeetako gizon eta emakume aipagarriak: erlijio-berrikuntzaren eragileak

Berrikuntza-garai honetan, Euskal Herriko pertsona batzuek erreforma katolikoaren alde lan bikaina burutu zuten European eta Euskal Herrian. Trentoren aurretik ere, berrikuntza bide onetik hasia zen eta horren arima izan zirenak bi misiolari, Fr. Juan de Zumarraga (+ 1548) eta Xabierreko Frantzisko (+ 1552) eta Europako berrikuntzaren gidari aparta izan zen Loiolako Inazio (+ 1556). Trentoko kontzilioan esku hartu zuten beste batzuk ere aipatu behar ditugu, hauen artean, Kalahorrako apezpiku izan zen Juan Bernal Díaz de Luco (+ 1556), Bartolome Carranza (+ 1576); edo eta European hain eragin handia izan zuten Martin Azpilkueta (+ 1586) edo Domingo de Jesus Maria (Ruzola, + 1630) etab.

c. Iraultzak eta berrikuntza katolikoak (XIX. mend.)

XVIII. mendearen amaieran eta XIX. mendean zehar, gizarte-ari dardara eragin zioten iraultzak eta gerrak European, Frantzia eta Espainian batez ere, euskal Elizarentzat zailtasun larri bilakatu ziren. Antiklerikalismoak eta kristau erlijioaren aurkako amorrak Elizaren barruko erakunde eta pertsonak desegi-

ten zituzten. Suntsiketa, hilketa, erbesteratze, arpilaketa eta desamortizazioak ukaldi latza izan ziren euskal Elizarentzat. Eliz erakunde eta pertsonen aurka egindako jazarpen honen aurrean, euskaldun katolikoen jarrera, benetako katolikotasun biziberrituaren eredu izan zen.

1. Katolikoen erantzuna Baionako elizbarrutian

1789. urtean hasi zen Frantziako Iraultzaz, Baionako elizbarrutian jazarpen, izualdi eta errepresioa hasten dira, bai Euskal Herri gisa zituen eskubide sozio-politikoen aurka eta bai, batez ere, kristau eta katoliko gisa zituen eskubideen aurka.

Erlijosoen elkarteak eta seminarioa deseginak izan ziren, Elizaren ondasunak ostuak, zisma sortu zen, "konstituzioaren aldeko" apaizak ezarri zituzten, haietariko asko urkatuak izan zirelarik. Apaiz askok Hegoaldera ihes egin eta bilatu zuten gordelekua; beste asko hil egin zituzten. Paganotasuna ezartzeko ahalegin bizia nabari zen.

Baina jazarpen horren aurrean, kristau herrian fede eta katolikotasunaren biziberritzea gertatu zen; Baionako elizbarrutian XIX. mendeari "urrezko mendea" deitu zitzaion, hain erreakzio jatorra izan zen! 1801.eko konkordatuaz, Baionako elizbarrutiaren menpean gelditzen ziren lehenago apezpiku-hiri izandako Leskar, Oloroe, Aire, Dax eta Tarbes. Baina 1822. eta 1823.ean, elizbarrutiari orain duen lurraldea eta hedadura eman zitzaizkion, hau da, Pirinio Atlantiarreko departamentua (antzinako Baiona, Oloroe eta Leskarko apezpiku-hiriak hartzen zituena).

Ahalegin handiak egin ziren erlijio-bizitza indartu eta berritzeko, herri-misioiak emanez eta konbersio ugari lortuz. Elizgizonen heziera eta berrikuntzaz asko arduratu ziren, seminarioak berreraikiz, ikasketak antolatuz, eskoletan irakatsiz eta abar, baina batez ere erlijiosoaren ordenak indartsu sortzean loratu zen kristau bizitza.

Berrikuntza-eragin hau Elizako pertsona euskaldun askoren buldatzadaz azkortua, bizitua izan zen eta horrela Elizaren aurpegia berriago, distiratsuago ageri zen. Lehenengo eta bat, berrikuntza horren eragile izan ziren apezpikuak aipa genitzake, adibidez, Paul-Tehèrese David d'Astros (1820-1830). Baina horretan ahalegindu ziren beste gizon eta emakume batzuk ere, haietariko asko elizbarrutian ez zeudela. Hona izenik aipagarrienetariko batzuk: Dominique Eliçagaray (+ 1822), G.X. Lacroy Ravignan (+ 1858), A. Hiraboure (+ 1859), Elise Cestac (+ 1849), Louis-Eduard Cestac (+ 1868), F. Franchistéguy (+ 1882), Ch. Lavigerie (+ 1892), A. Etchécopar (+ 1897), M. Inchauspé (+ 1902) etab. Baina bazen euskaldun bat, berrikuntza katoliko honen sinbolo zena, mugimendu eta kongregazioen sortzaile, XIX. mendeko euskal Elizaren gizonik goragarriena: Mikel Garikoitz Santua (1797-1863).

Berrikuntza honetan, erlijiosoen kongregazioak sortu, erlijioso-elkarteak biziberritu zituzten beste batzuk ere gogoan izatekoak dira. Hona kongregazio eta elkarte batzuk: Hazparneko Misiolarien kongregazioa, irakaskuntzako erlijiosoen kongregazioak (Filles de la Croix, Sevantes de Marie, Dames de Lorette...), Kristau-Eskoletako Anaiak, Maristak... Atzerriratuak izan ziren Frantziskotarrek 1849.etik 1851.era bitartean ekin zioten berriro euren erlijioso-bizitzari Danapaleun; Kaputxinoek, berriro, Baionan, 1856.etik 1862.era bitartean.

2. Hegoaldeko elizbarrutiak

Hegoaldean, antiklerikalismo eta kristautasunaren aurkako joerari zegokienez, egoera berdintsua zen. XIX. mendearen lehen zatia eliz desamortizazioen garaia zen; gerra, matxinada eta burruka politikoen artean, esklaustrazio-agindu eta abar, euskal Elizak izugarritzko erasoak jasan zuen. Desamortizazioa edo Elizaren ondasunen lapurketa etorri zen. Entzute handiko komentuak suntsituak izan ziren, haien bizitza galerazia eta haien ondasunak salduak. Erlijioso-ordenarik gehienak desagertu ziren praktikan...

Hegoaldean ere, berrikuntzarako ahaleginak handiak izan ziren bertako gizon eta emakumeen aldetik, eta XIX. mendearen azkenenrantz eta XX.aren hasieran, bizitasun edo kemen handia erakutsi zuten, erlijiosoen ordenetakoek batez ere.

Horrela, esaterako, Karmeldarren artean, Euskal Herrian eta Espainian, esklaustrazio ondoren erlijio-bizitzara itzuli zen lehen komentua Markina izan zen (1868). Itsasoz handiko misiolarien ikastetxe izatekotan lortu zituen baimenak. Horrela, Markina abiapuntu zela, lehengoratzeko edo ordenaren berreraikuntza Espainia osora zabaldu zen; harrezkero gaur arte, Karmeldarren euskal probintzia hau Ordena guztiko ugarien eta azkarrena izan da. Esaterako, Domingo de San Jose, karmeldar nafarra (Arbizu eta Munarriz, 1799-1870) Ordenaren berreraikuntzaren aitzindari izan zen Frantzian eta Espainian.

Beste Ordena batzuetan ere gauza bera edo berdintsua gertatu zen: beste nafar bat, Juan Jose Areso (1797-1878), herri-apostolu handia, izan zen Frantziskotarren Ordenaren berreraikuntza Frantzian bultzatu zuen langile errimea. Eta beste nafar bat, Esteban de Andoain (+ 1880), apostolu eta misiolaria, Kaputxinoen Ordenaren berreraikuntzan langile aspergaitza.

Hain zuzen ere, garai honetan, 1862.ean sortu zen Gasteizko elizbarrutia Euskal Herriko hiru probintzia bere eskumenean hartzen zituela; eta urte gutxi geroago, Nuntzioak Espainiako elizbarruti guztietatik onentzat jo zuen.

Katoliko izaera berri eta benetako kristautasunaren adierazgarri, lehenago aipatutakoez gainera, honako hauek aipa gennitzake: Pedro Cirilo Uriz eta Labayru, nafar apezpikua (+ 1870); Santa Bizenta Maria Lopez de Vikuña (+ 1890), Mariaren Alaben fundatzailea, gehien bat Euskal Herrikan kanpo bizi izan zena; Rafaela Ibarra dohatsua (+ 1900), Aingeru Zaindarien Kongregazioko erlijiosen fundatzailea etab.

2. PROTESTANTISMOA (XVI. ETA XVII. MENDEAK)

Europaren historian hain garrantzitsua izan zen gertakari honen oihartzun bizia izan zuen Euskal Herrian ere, Iparraldean batez ere, XVI. mendearen bigarren erdian.

Hemen ez dut bibliografia orokorrik emango, ikaragarria bait da; Euskal Herriari eta inguruari dagokiona, Biarnorena, adibidez, emango dut soilik.

Lehenago esan dugunez, *erreforma* hitzaren esannahia korapilatsua da, eta ez dago argi eta garbi zehaztua. Baina eskuarki, *erreforma* hitzaz, XVI. mendean Luther-en ekintzaz geroztik, Eliza katolikotik aldentutako talde sozio-erlijiosoak adierazten dira. Baina erreforma Eliza katolikoaren barne-ekintzarekin guztiz loturik dagoenez gero, nahasketarik gerta ez dadin, protestantismo eta protestante izenak erabiliko ditut.

Hasieratzat, Martin Luther-ek 1517.eko Urrian, indulgentziei buruz, 95 tesien argitarapena hartzen da.

a. Europako protestantismoaren sorburua, haren garapenaren zergatiak eta ondorioak

Lerro bakan hauetan, gai honetan berezitua den J. Lortz-ek zehatz-mehatz azaltzen dituen ideiak agertu baizik ez dut egingo.

1. Aldez aurretiko jarrera eta sorburua

Protestantismoa edo Erreforma, XVI. mendearen hasieratik garatu zen mendebaldeko Eliza osoan, harentzat benetako mehatxu izanik. Hasieran Elizaren aurkako burruka, esparru izpiritual-erlijiosoan gertatu bazen ere, gerora aginte politikoak ere tartean sartu ziren, gatazka hau manipulatu eta hartaz euren onerako baliatuz. Benetako gai teologiko handiak baztertzat zihozten eta azaleko gaietan arreta jarritz. Indulgentzien gaian, santuen elkartasun edo kristau elkarteari zegokion doktrina moteldua edo faltsutua gelditu zen. Sakramentuei ez zitzaien behar adinako baliorik ematen. Eskola teologiko desberdinek,

joerek eta taldeek, nahasketa sortu zuten oinarrizkoari buruz, hau da, *katolikoa* zenari buruz.

"Humanismo"aren eraginarekin nahasmen hau handitu bai-
zik ez zen egin, hark hasieran, iturburuetara joz, argitasuna bi-
latzen bazuen ere.

Beste batzuetan, eszeptizismoa filosofian eta teologian na-
barmena zen, eta dogma eta Elizarengan sostengua bilatu be-
harra ahuldu egin zen. Beste aldetik, autore batzuegan erudi-
kizio handia nabari zen, moral-kutsuko pietate ez-dogmatiko-
arekin batera; horren ereduatariko bat Erasmo dugu. Humanis-
ta bikain honengan, Eliza eta sakramentuei zegokien doktrina
ahulegia zen, Martin Luther-en *theologia crucis*-en predikuari
ihardespem argia emateko.

Egoera hau oraindik larriago bihurtu zen, Elizak zeraman
administrazioarekin eta zuzenbide kanonikoari ematen zitzaion
garrantzi handiarekin. Beste aldetik, Erromako irakaslegoak ez
zuen hainbesteko irrikaz itxaroten zen artzain-erantzun argirik
ematen.

1517.eko urriaren 31n agertu ziren M. Luther-en tesiak.
1518.eko abuztuaren 7an, Aita Santuak, ondorengo 60 egunen
baruan, Erroman agertzen agindua igorri zion; baina bihara-
munean, Luther-ek, elkarrizketa hau Alemanian egin zedila es-
katu zion printze hautesleari; horrela, hasieratik esku hartzen
hasiko da aginte politikoa eta harez gero, beti esku hartuko du.

Protestantismoarentzat erabakiorra izan zen M. Luther-en jo-
kaera Reichstag de Worm-en (1521.eko apirilean). Luther enpe-
radorearen aurrean agertu ahal izatea, besterik gabe ere, haren
ideien aldeko garaipena zen. Printzeen edo tokian tokiko hau-
tesleen babesaren izan zuten, Sajoniakoarena, adibidez, eta horrela
aurrera egin ahal izan zuten. Geroago astrapaladak sortu ziren,
eliza, monastegi eta hirietako iskanbilak; eta protestantismoa
indarra hartuz joan zen. *Nekazarien gerran* (Bauernkrieg) garbi
ikus zitekeen Luther-en ideiak herriarengan ongi erroturik zeu-

dela. Printze edo tokian tokiko hautesleek geroago eta ahalmen handiagoa zuten; eta gudu sozio-politikoak, erlijio-gatazkekin batera, gelditu ezinekoak ziren jadanik. Kontzilioa egin zen, baina mendebaldeko Elizaren haustura buruturik zegoen.

Mugimendu honek bultzada berria hartu zuen Suitzan Z. Zwinglí eta J. Calvin-ekin.

Gero Frantziara zabaldu zen. Frantzisko I.a kontra ez agertzeak bideak erraztu baizik ez zizkion egin protestantismoari; baina hau, doktrina katolikoaren aurka, bere panfletoekin hasi zenean, erregeak erasoari ekin zion. Baina 1560. urtean jadanik Frantziako biztanleen heren bat kalbinista zen. Baina burruka latzak izan ondoren, Enrike IV.ak, 1598.eko Nantesko ediktuaren bitartez, kultu-askatasuna eman zuen.

2. Garapen eta hedapenaren bitartekoak eta arrazoiak

Hartarako gauza guztiak prest-prest zeudela eta gizartea zegoen bezala egonik, haustura ezinbestekoa zela jakinik ere, haren sorburu eta garapena iluntasunez beterik ditugu.

aa. Haren hedapenaren erru nagusietariko bat, Elizan irrika biziz nahi zen berrikuntzarik ez egiteari egotzi behar zaio, eta horrekin batera, Erromaren kontra gehituz zihoan amorruari. Askok, M. Luther-en prediku bikainez liluraturik, berau hartu zuten erlijioaren berriztatzailatzat, haren irakatsiaren joera ez-katolikoetan erreparatu gabe. Hasieran, Elizaren barruko berrikuntza bezala zabaldu zen.

“Atzerriko banderapean hazte hau”, humanismoaren kasuan ikus daiteke zehatz-mehatz. Honek zerikusi handia izan zuen protestantismoaren zabalkundearen, nahiz eta humanismo hau, M. Luther-en kristologiatik eta gurutzearen teologiatik oso urruti egon.

Zabalkunderako guztiz lagungarri izan zen moldiztegia: M. Luther-en predikuak erraz zabaltzen ziren. Beste aldetik protestantismoak heziera eta eskola berrantolatu zituen.

Psiko-soziologikoki garrantzi handia zuten jendearen bihotza hunkitzeko erabiltzen zituzten slogan edo esakune laburzorrotzak; oihartzun ikaragarria zuten, adibidez, honelako sloganak: “Hitz hutsa”, “idazteuna soilik”, “fedea soilik”, “kontzientzia eta haren askatasuna” etab. halaber kontzilioa egitearen aldeko oihua.

bb. Baina arrazoi hauek guztiak ere ez ziren aski izango, tokian tokiko laguntza politiko indartsua izan ez balu. Sekularpenak eta Elizari bere ondasunak kentzeak, printzeak zeharo indartu zituen. Aginte politikoak tartean zirenez gerotzik, Luther-en mugimendua ez zen jadanik erabaki erlijioso eta pertsonala.

cc. Protestantismoak sustrai edo iturburu ugari izan arren eta aginte politikoak hor eskua sartu arren, hala ere, buruzagi politikoaren baitan arrazoi erlijioso-kristauak indar handia zuen. Mugimendu berriaren oihartzuna buruzagi politikoengan eta bere kausarako pertsona ugari, argi eta prestuak erakarri izanak, asko egin zuen protestantismoari bultzada emateko. Baina batez ere M. Luther-en ebanjelioa iragartzeko era berri, bizi eta adierazkorrak entzuleen eta haren artean harreman estua sortzen zuen berehala; hau da, lilura edo erakarpen berezia zuen entzuleengan; hasiera batean, Luther-en kualitate hauek erabakiorrak izan ziren.

3. Ondorio eta emaitzak

aa. Ondorio erlijioso eta teologikoak ugari eta biziak izan ziren.

Baina ondoriorik larriena kristandadean gertatu zen haustura izan zen. Gertakari ikaragarria. M. Luther, Zwingli eta Calvin, dogmaren aldetik ziur-ziur egon arren, oinarri bakar eta berberetik, hau da, “Idazteun hutsetik”, Eliza katolikoaren irakaslego bizia ukaturik, hainbeste joera ez-dogmatiko desberdin sortu ziren.

Protestantismoak garrantzi handiko ondorioa izan zuen Eliza katolikoaren barruan ere. Horrela, Elizaz dugun irudia eta ho-

nen bitzita, jasan dituen eragin onuragarri, kaltegarri eta guzti, protestantismoaren gertakari historikolari zeharo loturik daude. Eliza osoaren berrikuntza sakona ekarri zuen. Eliza katolikoaren erreakzio berritzailea harrigarria izan zen.

Beste aldetik, Eliza erne jarri zen, defentsiban. Eta heresi arriskuei aurre egiteko, ordurarte zegoen askatasun-giroa pixka bat estutu egin zuen.

Ondorio kulturalak ere izan ziren; baita politikoak ere, abertzaletasuna eta estatu nazionalak sorterazirik.

b. Euskal Herria: Iparraldea (eta Biarno)

1. Geografia zibil-erlijiosoa eta protestantismoaren bibliografia

Iparraldeak, soziologi aldetik, batasuna izan arren, bere herrialdeak, administrazio eta politika aldetik, eragipen desberdinen menpean zeuden; alde batetik Lapurdi, bestetik Nafarroako erreinua (Nafarroa Beherea) eta bestetik Zuberoa eta Biarno, etab. Elizaz, berriz, hiru zatitan bereizirik zegoen: alde batetik Baionako elizbarrutia, bere eskumenean Lapurdi, Gipuzkoaren eta Nafarroaren zati bat eta Nafarroa Beherearen beste zati bat zituela; Daxko elizbarrutia, Nafarroa Beherearen zati bat bere eskumenean zuela; Oloroako elizbarrutia, bere eskumenean Zuberoa zuela. Beraz, protestantismoa agertzen denean, ez da Iparraldeko herrialde guztietan era berdinez zabalitzen, ez eta indar bera lortu ere toki guztietan. Zenbat eta Biarrotik hurbilago, protestantismoaren menpetasun handiagoa. Honela, indartsuen Zuberoan errotu zen, gero Nafarroa Beherean eta azkenez, Baiona-Lapurdin izan zuen sarrera ahulena.

Bibliografiari dagokionez, nahiko ugaria dela esan behar. Lehen-lehenik, Frantziako protestantismoari buruzko bibliografia orokorra dugu. Iparraldeko protestantismoarekin zerikusia duten pertsona aipagarriei buruzko ikerketak ere baditugu, ideia berriak begiko zituen Marguerite bezalako pertsonen buruzkoak; Iparraldean protestantismoaren aldeko urrats trinkoa

eman zuen honen alaba Jeanne d'Albret-i buruz hainbat lan daude, eta beste batzuei buruz ere bai...

Iparralde eta honen inguruari dagokionez, Biarno da protestantismoak errorik sendoenak bota zituen lurraldea eta, beraz, bibliografiarik ugariena duena: haren jatorri, garapen, burruka eta indarkeria, eztabaida, Elizari ondasunak kentze, unibertsitate protestante, kultu katolikoa berrezartze eta abarri buruz, dokumentazio ugari dago argitaraturik, eta ikerlanak ere bai.

Euskal lurraldera etorritz, ikerlan eta dokumentazio orokorraz gainera, Zuberoako protestantismoaz, Nafarroa Beherekoaz eta Lapurdikoaz, bereziki honen hiriburu Baionakoaz ditugu dokumentazio eta ikerlanak.

2. Zuberoa eta Nafarroa Behereko protestantismoaz zenbait datu jakingarri eta oinarritzko

aa. Prestaketak eta hasierak

Zurrumbilo sozio-erlijiosoen mende honetan, aldakuntza sozio-politikoak gertatu ziren. Nafarroaz jabetu ondoren, 1512.ean, Nafarroa Beherea Albret-eko etxearen menpean zegoen, eta Zuberoa, artean Biarnoko bizkonteen menpean egonik, Frantziako erreinuaren menpeko egiten da behin betiko 1512.ean. Egoera politiko-geografiko hau, protestantismoaren auzi honetan, erabakiorra izan zen.

Lehenago ere adierazi dugu pertsona batzuek, apezpikuek eta, E. Ponchier-ek (1532-1550), adibidez, egoera negargarri hau konpondu nahi izan zutela, zenbait berrikuntza sartuz; beste aldetik, elizbarrutiaren egoera oraindik larriagoa zen, apezpikuak Baionako apezpikutegitik kanpo maiz egoten zirelako. Berrikuntzarako gogoa nabari zen.

Protestantismoa laster agertu zen Zuberoan, Biarnon bezala. Burgeseriaren goiko mailetakoak erlijio berriaren aldeko egin ziren; esaterako, Maulen, Enecot de Sponde, mugimendu berriaren alde jendaurrean agertu zen lehenengotarikoa izan

zen; Nafarroa Behereko kantzelaritzako aholkulari eta Albret-eko Jeanne-ren idazkari zen. Bordeleko parlamentuak, 1549.ean eta 1550.ean, hereseen aurka kondena edo gaitzespenak egin zituen, baina handik urte batzuetara, Albret-eko Jeanne-rekin, ageri-agerian haien aldeko jokaera hartu zuen.

Gérard Roussel, Jeanne erreginaren kaperauak laguntza emanik, erraz sartu zen doktrina berria Zuberoan; Gérard Roussel hau, 1536.ean Oloroako apezpiku izendatua izan zen (1539-1555) eta, jakina denez, Zuberoa elizbarruti honen eskumenekoa zen. Izatez ez zen kalbinista, baina horren antzeko Elizaren alde egiten zuen bere predikuetan; bizimodu latzekoa zen; hala ere, Erromarekin ez zuen sekula hautsi argi eta garbi. Honen baimenik gabe ezin zitekeen sermoirik egin, hala ere, frantziskotar bat ausartu zen Maulen 1546.eko garizuman sermoiak egitera, eta horren ondorioz, istilu latzak sortu ziren.

bb. Albret-eko Jeanne, honen ekintzak eta katolikuen erantzuna

Protestantismoaren protagonista azkarra Jeanne izan zen; gurasoak hil zitzaizkionean, 1553.ean ama eta 1555.ean aita, Nafarroa Beherea, Zuberoa, Biarno eta abar bere agintepean zituen; 1560.eko azaroaren 25ean ageri-agerian eta handikiro kalbinista egin zen. 1561.eko uztailen apaiz katoliko eta bikarioei predikuetarako debekuak jartzen hasi zen. Harrezkero, ageri-agerian jokatzeko katolikoek aurka. 1563.ean zorrozki debekatu zituen *Fête-Dieu* izeneko elizinguru ospetsuak, haren arduradun edo antolatzailea heriotz-zigorrez mehatxatuz. Orduan hasi ziren bortxakeria eta heriotzeen izua erabiltzen.

1564.eko otsailen, kofradia katolikoek ondasunak saltzeko batzorde bat izendatu zen, geroago beste horrenbeste egin zen eliza eta beste ondasunekin. Jeannek "Elizetxe" zeritzen eliza kalbinistak eraiki erazi zituen. Bere ordezkoko Gramont jeneralarri idatzi zion, eliza katolikoetan bere ministrariak predika zezatela eta parroku katolikoak bertan egotera behartzeko eskatuz, euren karguak kentzearen mehatxuarekin.

izan zuen; eta Zuberoan 1568.ean ministrari protestanteak ezarri zirenez, orain ere, 1687.ean, beste horrenbeste egin zen Maulen; haien tropek triskantza handiak egiten zituzten. 1592.ean Mauleko Notre-Dame katedrale txikitik kalonjeak egotzi eta ministrari protestanteak jarri zituzten.

Behin betiko bakeak egiteko, garrantzi handia izan zuen, Frantziako errege Henri IV.ak, 1593.eko uztailearen 25ean, protestantismoari uko egin izanak. Zuberoan, protestantismoaren aitzindariarikoa izan zen Enecot de Sponde-ren bi semeek jarraitu zioten. 1598.ean, Erregeak, kultu-askatasuna aldarrikatuz, Nantesko ediktua argitaratu zuen.

cc. Albret-eko Jeanne-ri lagundu zioten pertsona batzuk

laburpen txiki-txiki honetan aipatutakoez gainera, Jeanne erreginaren ondoan gailendu ziren beste batzuk ere aipatu behar ditugu.

Lehen erreformatzaile euskaldun eta Jeanne-ren laguntzaileen artean, Jean Cheverry dugu, Donibane-Lohizuneko semea eta ikasketak Suitzan egindakoa.

Baina protestante guztietarik ospetsuena eta gure artean sonarik handiena duena, bere euskarazko lan literarioagatik, Johannes Leizarraga apaiza da. Jeanne erreginak bibliaren, vulgataren itzulpena euskarara egiteko eskatu zion; 1565.ean bukatu zuen Testamentu Berria, La Rochelle-n 1571.ean, Jeanne erreginari eskainiz, argitaratu zelarik.

3. Baiona - Lapurdi

Lehenik gogoan izatekoa da Baionako elizbarrutiak jasan zuen mozketaren geografikoa; 1566.ean, Felipe II.ak, arrazoi sozio-politikoengatik, Gipuzkoa eta Nafarroa Baionako elizbarrutitik banandu egin nahi zituen; eta bi herrialdeok eskuratzeko abagunea protestantismo eta erlijio-gatazkek eman zioten; 1566.ean lortu zituen Aita Santu Pio V garrenagandik, baina behin-behinekoz.

Beste aldetik, Baiona eta Lapurdiko protestantismoari dago-kionez, egoera Nafarroa Beherekoaz eta Zuberoakoaz gonbaratzekoa ez da, guztiz bestelakoa baizik; Baionan egoera ez zen beste herrialde horietan bezain larria.

Baionan protestantismoak ez zuen ongi errotzeko erarik aurkitu. Hala ere gatazkak izan ziren eta eliz agintariak eta hiriak katolizismoaren alde erne eta kezka zeuden. 1565.ean hiria bakez zegoen, Frantzian salbuespentzat jotzeraino. Geroago, hala ere, gatazkak izan ziren... 1565.ean protestanteak kanpora egotziak izan ziren. 1589.erantz, "anaiarteko gerrate" giroan, egoera tristea izan zen: salakuntzak, susmo txarrak... Frantzian zeuden gerra nahasien ondorioa izan zen pertsonen segurtasunik eza ere.

c. Hegoaldea

Protestantismoaren egoera hegoaldean zeharo desberdina izan zen; euskal gizarte katolikoan sartzerik ez zuen lortu.

Arestian esana dugu nola 1566.ean Felipe II.ak Baionako elizbarrutiaren eskumenetik banandu zituen Gipuzkoa eta Nafarroako lurraldeak. Erakunde politikoek gogor jokatu zuten protestantismoa sartzeko ahaleginen aurka, eta inkisizioak ere beste horrenbeste egin zuen. Hala ere, hasieran, 1523.ean jadanik, Inkisizioak Nafarroako inkisidore eta Gipuzkoako korregidoreari adierazi zien bere kezka, lutertar liburuak sartzen zirelako Pasaiaiko portutik zehar. Hegoaldean zabaltzeko lehen ahaleginak eragotzeko Inkisizioa hain erne egonik, sarrera oso zail bihurtu zen.

Protestantismoa sartzeko XVI. mendean egindako ahalegin haiek ez zuten fruiturik eman, baina XIX.ean berriro agertu ziren. Euskal apezpikuek alarma jotzen dute, Iruñekoak adibidez, gutun pastoral baten bidez, protestantismoaren arriskuaz katolikoak erne jarriarik... XIX. mendearen bigarren erdian, protestanteen zentroak eraiki ziren Logroñon, Donostian, Bilbon eta beste toki batzuetan.

Julen Urkiza